



## EBALUAZIO FITXA BETETZEKO GIDA

### "Balio natural handiko sega-belardiak" laguntza

Zer da belardiaren **balio naturala**? Belardiaren balio naturala da kasuan kasuko belardiak landareen nahiz animalien biodibertsitatea babesteko duen gaitasuna. Balio naturala, funtsean, belardian bertan dauden landareen dibertsitatearen araberakoa da, bai eta ekologiari eta paisaiari begira balio handia duten elementuen presentziaren araberakoa ere, jatorri naturalekoak izan (heskaiak, hezeguneak, zuhaitz bakartiak) nahiz gizakiak sortutakoak izan (bordak, hormak).


Laguntza honetarako, belardiaren balio naturala 0tik 100era bitarteko puntuazioarekin adierazten da.



# Balio naturalaren puntuazioa

## NOLA LORTZEN DA?

Belardiaren balio naturalaren **puntuazioa ebaluazio fitxa betez** lortzen da. “**Balio natural handiko sega-belardiak**” **laguntza** zer belarditarako eskatu den, haietako bakoitza ebaluatu behar da.



## NOLA BETETZEN DA EBALUAZIO FITXA?

Belardiak biodibertsitatea edukitzeko duen gaitasuna ebaluatu behar dugu; fitxa, beraz, ebaluazio horren emaitza izanen da. Ebaluazioa belardian berean egin behar duzu **maiatzaren 15etik uztailaren 15era**, eta ebaluazio unearen argazki bat atera eta espedienteari erantsi behar diozu. Hortaz, aukeratu bi data horien arteko egun eguzkitsu bat, zure belardia lorez beterik dagoenean, hartu mugikorra, boligrafoa eta fitxa, eta denbora-tarte bat beharko duzu balio naturalaren ebaluazioa egiteko.



Fitxa bi ataletan egituratua dago: lehena **belardiaren kalitateari** eta haren dibertsitateari buruzkoa da, eta bigarrena, berriz, **balio natural handiko elementuei edo egiturei** buruzkoa.



# Belardiaren kalitatea


## 1. Landare “onuragarrien” kopurua

Atal honetan landare “onuragarrien” zerrendako landareak eta loreak bilatu eta identifikatu behar dituzu, **“Balio natural handiko sega-belardiei laguntzeko landare onuragarrien Gida”** erabiliz.

Hori egiteko, belardia oinez gurutzatu beharko duzu norabiderik luzeenean.



Landare onuragarrien gidan jasotako landare bat ikusten duzun bakoitzean, gidan markatuko duzu.



Belardi guztia gurutzatzen duzunean, galdera honi erantzun behar diozu:

**Zenbat landare adierazle onuragarri aurkitu ditut belardian?**

Belardian aurkitutako landare “onuragarrien” kopurua markatu:

| Landareen kopurua | <=9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | >16 |
|-------------------|-----|----|----|----|----|----|----|-----|
| PUNTUAK           | 0   | 5  | 10 | 15 | 20 | 25 | 30 | 35  |





## Landare onuragarri aunitz dituzten sega-belardien adibideak



## 2. Landare “onuragarriak” gabeko belardiaren ehunekoa

Atal honetan, landare onuragarriek belardi osoan duten garrantzia baloratu behar duzu. Litekeena da belardian barna ibili behar izatea atal hau ebaluatzeko. Landare adierazle onuragarri aunitz aurkitu badituzu ere, baliteke haien presentzia puntuala izatea edota ebaluatzen ari zaren belardiaren zati batean bakarrik egotea.

Beraz, honako galdera hau egin behar diozu zeure buruari:

**Belardiaren zer ehunekok EZ du landare adierazle onuragarriak?**



| Ehunekoa | Handia<br>% >90 | Ertain-Handia<br>%75-90 | Ertaina<br>%50-75 | Ertain-Apala<br>%25-50 | Apala<br>%<25 |
|----------|-----------------|-------------------------|-------------------|------------------------|---------------|
| PUNTUAK  | -10             | 0                       | 10                | 20                     | 30            |

Belardiaren ehunekoa markatu. "Belarrak" landare onuragarria ez da kontutan hartzen.



### 3. Landare ezberdin gutxiko belargune trinkoak

Hemen atzeman behar duzu belardiaren zer eremutan eragozten dien landare batek (landare onuragarrien zerrendakoa izan ala ez) beste landare batzuei haztea belardiaren eremu horretan, kasuan kasuko landarearen estaldura eta trinkotasun oso handiaren ondorioz.


Landare mota ezberdin asko ez duten eremu horiei (landare bat edo oso landare mota gutxi dira nagusi) **landare mota gutxiko belargune trinkoak** esaten diegu. Belardian barna ibiltzean atzeman behar duzu horrelako belargunerik ote dagoen eta zenbat azalera hartzen duten ehunekoetan.

Galdera, beraz, honako hau da:

**Belardiaren zer ehuneko dago landare mota gutxiko belargune trinkoek estalia?**

| Ehunekoa | Handia<br>% >90 | Ertain-Handia<br>%75-90 | Ertaina<br>%50-75 | Ertain-Apala<br>%25-50 | Apala<br>%<25 |
|----------|-----------------|-------------------------|-------------------|------------------------|---------------|
| PUNTUAK  | -10             | -5                      | 5                 | 10                     | 15            |

Belardiaren ehunekoa markatu



Basagaragarra osaturiko  
belargune trinkoa



Hirusta zuriko belargune trinkoa

### 4. Belardiaren ehunekoa landare kaltegarrietan

Atal honetan, landare "kaltegarriak" belardian duten presentzia ebaluatuko duzu. Landare horiek, orokorrean, belardiaren hondatzearekin daude lotuta. Landare "kaltegarriak" ohikoenak kardua, rumex-a, asunak eta artzain-zakua dira.

Aurreko ataletan bezala, baloratu behar duzu landare horiek belardiaren zer azalera hartzen duten. Horrenbestez, galdera hau da:

.... >



## Belardiaren zer ehuneko hartua dute landare adierazle "kaltegarriek"?

| Ehunekoa | Jasangaitza<br>(artzaintza neurrigabea)<br>%>5 | Garrantzirik<br>gabeko presentzia<br>%2-5 | Artzaintza jasangarria<br>%<2 |
|----------|------------------------------------------------|-------------------------------------------|-------------------------------|
| PUNTUAK  | -10                                            | 0                                         | 5                             |

Landarea markartu: Rumex ☐ Asunak ☐ Karduak ☐ Beste batzuk (adierazi) \_\_\_\_\_



Asunak



Rumex



Karduak



Karduak



## 5. Materia lehorraren presentzia belardian

Sega eta/edo artzaintza funtsezkoak dira landare mota asko mantentzeko; horrenbestez, balio naturala mantentzeko.

Belardia aprobetxatzen ez bada, ez larratzeko, ez bazka-landareetarako, materia lehorra metatzen da; horren ondorioz, lore eta landare mota gutxiago hazten dira epe ertain-luzera, eta horrek biodibertsitate-galera dakar.



Atal honetan, belardiaren azalera dagoen materia lehorra ebaluatuko duzu, galdera honi erantzunez:



### Belardiaren zer ehunekok dauka materia lehorra?

| Ehunekoa | Handia<br>%>75 | Ertain-Handia<br>%50-75 | Ertain-Apala<br>%25-50 | la ez dago<br>%<25 |
|----------|----------------|-------------------------|------------------------|--------------------|
| PUNTUAK  | -20            | -10                     | 0                      | 5                  |




Materia lehorraren presentzia



## 6. Abandonuaren landare adierazleen presentzia

Belardian zuhaixkak egotea abandonu egoeraren ondorioa da, eta horrek arriskuan jartzen du bai biodibertsitatearen kontserbazioa, bai belardia bera mantentzea. Zuhaixkez eta sasiez gain, iratzerik eta albitzik ote dagoen ebaluatu behar duzu, abandonu egoera adierazten duten belarrak baitira.

Belardi osoari erreparatu eta gero, galdera honi erantzun behar diozu:



### Belardiaren zer ehuneko dago sasiek, iratzeek eta/edo albitz-belarrak estalirik?

| Ehunekoa | Handia<br>%>50 | Ertain-Handia<br>%25-50 | Ertain-Apala<br>%10-25 | la ez dago<br>%<10 |
|----------|----------------|-------------------------|------------------------|--------------------|
| PUNTUAK  | -20            | -10                     | -5                     | 5                  |



Sasitzea



Albitz-belarra





Sasitzea



Iratzeak

## 7. Inpaktua eragiten duten jarduerak

Belardiak balio natural txikiagoa izanen du, baldin eta biodibertsitatearen kontserbazioa arriskuan jartzen duten jarduerak egin badira edo egiten ari badira.

Hona hemen jarduera inpaktu-eragilerik ohikoenak:

- **Drainatzeak**
- **Lur soildua eta/edo higatua** egotea (adibidez, zapalketak bazkategien eta asken inguruetan)
- **Abandonatutako plastikoak** egotea
- **Simaurre meta** zaharrak



Atal honetan, galdera honi erantzun behar diozu:

**Zer-nolako larritasuna dute belardian atzemandako jarduera inpaktu-eragileek?**

| Ehunekoa | Handia | Ertain-Handia | Ertain-Apala | Ia ez dago |
|----------|--------|---------------|--------------|------------|
| PUNTUAK  | (-40)  | -20           | -10          | 5          |



Zapalketak eragindako inpaktua



Drainatzea (inpaktu handia)



# Biodibertsitatea eduki dezaketen elementuak eta egiturak balio natural handiko elementuak

Biodibertsitatearen presentziarako elementu garrantzitsuak identifikatu behar dira. Elementu horiek hiru kategoriatan sailka daitezke (**apala, tartekoa edo handia**) eta kategoria bakoitzari puntuazio bat dagokio.



| Kategoria                 | Apala | Tartekoa | Handia |
|---------------------------|-------|----------|--------|
| Heskaiak edo mugak        | 0     | 5        | 10     |
| Zuhaitz bakartiak         | 0     | 5        | 10     |
| Hezeguneak                | 0     | 5        | 10     |
| Beste mikrohabitat batzuk | 0     | 5        |        |
| Beste batzuk ( )          | 0     | 5        |        |

Ebaluazio hau egiteko, belardiaren ertzean ibili behar duzu oinez inguruz inguru, topatzen duzun elementu bakoitzari erreparatzeko.

## 1. Elementu naturalak

Sega-belardi barnean dauden heskaiak edo mugak, istilak, errekek eta zuhaitz bakartiak balio natural handiko elementuak dira, eta ebaluatu behar dituzu. Mota bereko bi elementu edo gehiago baldin badira (adibidez, hainbat zuhaitz bakarti), behin bakarrik puntuatuko duzu elementu mota bakoitzeko, eta lortutako puntuaziorik handiena aukeratuko duzu (adibidez, kategoria handieneko zuhaitza).

### Heskaiak edo mugak

Heskaiak belardia inguratzen duten landaretza-egitura linealak dira. Heskaiak gutxienez 1,5 metroko garaiera izan behar du eta gutxienez 1,5 metroko zabalera, fitxan puntuatuko bada. Galdera hau da:

#### Belardiaren ertzaren zer ehuneko hartzen du heskaiak?

- Belardiaren ertzaren % 25 baino gutxiago **Behe kategoria**
- Belardiaren ertzaren %25etik % 50era **Tarteko kategoria**
- Belardiaren ertzaren **erdia baino gehiago (% 50) Goi kategoria**

Ebaluatzen ari garen sega-belardia baso soilgune batean badago, zuhaitzez inguratua, heskaia ere goi kategoriakotzat jotzen da eta puntuaziorik handiena dagokio.



## Puntuatzen ez duten mugak (perimetroaren %<25)



## Puntuatzen duten mugak (perimetroaren %>25)



### Zuhaitz bakartiak

Orain, belardiko zuhaitz bakartiak baloratuko dituzu, biodibertsitaterako duten interesaren arabera (antzinatasuna, tamaina, faunarendako zulorik eta elikagairik eskura ote dagoen). Behin zuhaitzaren aurrean zaudela, nagusiki enborraren diametroaren arabera sailkatuko duzu, galdera honi erantzunez:

#### Zer gaitasun dute belardiko zuhaitz bakartiek biodibertsitatea edukitzeko?

- Enbor diametroa **50 cm-tik beherakoa** **Behe kategoria**
- Enbor diametroa **50 cm-tik 100era**. **Tarteko kategoria**
- Enbor diametroa **metro batetik gorakoa**, edota, haren diametroa 50etik 100 cm-ra bitartekoa izanik ere, ezaugarri on-onak baditu animalia txikiak bizitzeko **Goi kategoria**

Tamaina txikiko zuhaitzak edo zuhaixkak baldin badaude, heskaiaren/mugaren zati gisa jotzen dira.



## Kategoria ertaineko zuhaitz bakartiak



## Goi kategoriako zuhaitz bakartiak




### Hezeguneak

Belardi barnean dauden iturburuak, idoiak edo/era errekek dira. Azalera horiek garrantzitsuak dira biodibertsitaterako, hainbat landare eta animalia mota barne hartzen dituztelako izan ere, belardian urik ez balego, ez legoke horrelako landararik eta animaliarik.

Puntuatzeko beharrezkoa den galdera honako hau da:

#### Zer azalera hartzen du hezeguneak?

- 25m<sup>2</sup> baino gutxiago **Behe kategoria**
- 25m<sup>2</sup>-tik 50era **Tarteko kategoria**
- 50m<sup>2</sup> baino gehiago **Goi kategoria**





## Hezegune puntuagarria



### Beste mikrohabitat batzuk

Atal honetan, belardiaren eremu jakin batzuk puntuatuko dituzu, hots, azaleraren gainerakoaz bestelako ezaugarriak dituzten eremuak (5 punturekin beti). Harkaitz azaleratzeak izan daitezke edo basoarekin mugakide diren eremuak, baldin eta gutxienez 100 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen badute. Horrelako hainbat eremu badira, azalera guztiak batuko dira 100 m<sup>2</sup>-tik gorakoak ote diren ikusteko.

Horrenbestez, galdera hau da:

**Ba al dira belardian gutxienez guztira 100 m<sup>2</sup> hartzen dituzten mikrohabitatat?**

## Mikrohabitat puntuagarriak



Bestelako landareak ertzean  
(ez muga)



Belardiaren gainerakoan ez bezalako  
landareak hazten diren harkaitz azaleratzeak



## 2. Gizakiak sortutako egiturak

Atal honetan, belardiak balio natural handiagoa izatea eragiten duten giza jatorriko egiturak ebaluatuko dituzu.

Batez ere, azienda-bordak eta harri lehorreko hormak dira, hainbat landare eta animalia motarendako aterpea baitira (narrastiak, hegaztiak eta saguzarrak, bereziki).

### Azienda-bordak

Azienda-borda baten puntuazioa jakiteko, hurrengo galdera egin behar duzu zure buruari:

#### Zer kontserbazio egoeratan dago borda?

- Bordak **ez du teilaturik**, edota **paretetako** bat eroria dago **Tarteko kategoria**
- Borda **egoera onean dago**, **sabaia belarrezkoa da** edo **teilatua harrizkoa da** edo **arabiar teilarekin egina dago** **Goi kategoria**

#### Tarteko kategoriako borda



#### Goi kategoriako bordak





## Harrizko hormak

Harrizko horma puntuatuko bada, gutxienez 0,75 metroko garaiera izan behar du eta hutsarte edo zuloak ere izan behar ditu, animaliek, landareek, goroldioak eta likenek erabil ditzaten. Hormaren zati bat erori bada, eroria dagoen zatiak txikiagoa izan behar du ongi dagoen horma zatia baino. Halaber, puntuatu behar dira zutikako harlauzekin markaturiko mugak.

Puntuazioa lortzeko, galdera honi erantzun behar diozu:

### Zer luzera du hormak?

- **25 m-tik** beherako luzera **Behe kategoria**
- **25 m-tik 50era** bitarteko luzera **Tarteko kategoria**
- **50 m-etik** gorako luzera **Goi kategoria**

Belardiko hainbat tokitan horma txikiak badaude, luzera guztiak batu beharko dira ebaluatzeko eta puntuatzeko.

### Puntuatzen duten harrizko hormak

